



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

**KONTSEILUA**



**PRENTSA OHARRA**

**EZ, WE CAN'T**

**Ez, ezin gara euskaraz bizi instituzio publikoetan.**

**Ez gara bigarren mailako herritarrak!**

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK 2019ko UDAL HAUTESKUNDEETAN ERAGITEKO KANPAINA AURKEZTU DU, TOKIKO INSTITUZIO PUBLIKOETAN EMATEN DIREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETAK SALATU ETA ALDERDI POLITIKOAK KONPROMISO ERREALAK HARTZERA GONBIDATZEKO

## **SARRERA**

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua 2016. urtean jaio zen euskararen normalizazioaren alde egin nahi zuten eskualdeko entitateen bilgune bezala (Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo, Aiara, Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo udalerriek osatzen duten eskualdean). Bilgune honetan eskualde osoko eta esparru ezberdineko [42 entitate dira kide](#); arlo sozioekonomikoko eragileak, ikastetxeak, kultur taldeak, kirol mundukoak... Hizkuntzaren normalizazioan ekarpen aktibo bat egin nahi duten entitateen bilgunea da beraz.

Kontseiluak urte hauetan, euskararen aldeko hamaika dinamika eta jardun garatu ditu; euskararen agenda, kirol esparruaren azterketa, euskararen eguneko dinamizazioak, Euskaraldia bera eta beste hainbat. 2019 urtean, datozen lau urteotan gure instituzio lokalak gobernatuko dituzten alderdien hauteskundeak direla eta, hizkuntz-eskubideen auzia mahai gainean jartzea erabaki du Kontseiluak.

Esparru instituzionalean, beste arlo askotan bezala, euskaraz osoki bizitzeko ezintasun nabari bat dugu euskaldunok: bigarren mailako herritarrak gara askotan instituzioen aurrean, eta okerrena dena, indarrean dauden legeek, dekretuek eta adostasunezko irizpideek aitortzen dizkiguten eskubideak urtez-

urte urratuak direla ikusten dugu. Larriena baina, egoera hori normalizat hartzen dela da, eta ez direla beharrezko neurriak hartzen eskubide urraketa horiek amaitzeko.

Egoera honi buelta emateko helburuarekin, eskualde luze-zabalean udal-hauteskundeetara hautagaitzak eta hauteskunde-programak aurkeztuko dituzten alderdi guztiekin harremanetan jartzeko dinamikari heldu diogu; alderdiei eskatzeko, hizkuntzaren normalizazioan eraginkortasunez aurrera egiteko neurriak har ditzaten, eta instituzioetan euskaraz bizi ahal izateko pausu sendoak eman ditzaten. Euskalgintza Kontseiluaren bokazioa instituzioekin batera lan egitea izan da, eta zentzu horretan, alderdiak ere bidaide nahi ditugulako gonbidatzen ditugu konpromiso berri hauek hartzera.

Kanpaina honen helburua, beraz, gure hizkuntzaren normalizazioan aurrera-urrats eraginkorrak ematen jarraitzeko bidea elkarrekin egitea izango da, fokua, hizkuntz-eskubideen erabateko errespetuan jarritz. Honetarako, alderdi politikoei eskaera nagusi batzuk egin dizkiegu, eta herritarrei eskakizun hauen aldeko sinadura publikoa emateko eskatzen diogu, jarraian azalduko den bezala.

## ALDERDI POLITIKOEI 3 ESKERA NAGUSI

Euskara udal-hauteskunde kanpainaren agendan kokatu eta Aiaraldeko instituzioetan hizkuntza-eskubideak errespetatzeko aldarrikapena agenda politikoan kokatzeko asmoz, alderdi eta hautagaien konpromisoak eskuratzea du xede kanpaina honek. Hiru eskaera nagusi egin dizkie Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Aiaraldea osatzen duten 9 udalerrietan udal-hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko guztiei.

- **Hautagai euskaradunak:** hauteskundeetara hautagai zerrendak aurkezten dituzten alderdiek alkategai zein zinegotzi izateko aurkezten dituzten pertsonak euskaradunak izateko eskaera luzatu diegu alderdi politikoei (euskaraz hitz egin edo ulertzen ez duen ordezkari politikoak ezingo baitu euskaradunak euskaraz hitz egiteko duen eskubidea bermatu, ez eta udaleko barne-funtzionamendua euskalduna izatea ahalbidetu). Hau horrela ez izatekotan, legealdian euskara ikasteko konpromisoa hartzea eskatzen dugu, euskaldunoi euskaraz hitz egin ahal izateko aukera bermatu ahal izateko.
- **Hauteskunde-kanpaina euskaraz ere garatzea:** hauteskunde kanpainako ekitaldietan zein euskarrietan, alderdiek euskararen presentzia aktiboa bermatzea eskatu diegu: ekitaldietako hitzartzeetan euskararen presentzia %50ekoa izatea gutxienez, eta argitaratzen dituzten publizitate euskarrietan ere (hauteskunde programak, eskuorriak, kartelak...); Euskararen eta gaztelaniaren presentzia parekidea izatea, euskara lehenetsiz.
- **Hauteskunde programetan euskararen normalizaziorako 11 neurri zehatz hartzea:** ulertuta euskararen normalizazioaren alde daudela alderdi gehienak (besteak beste Euskaraldia ekimenean adierazi bezala), proposamen honen bitartez, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak hauteskunde-programetan txertatzeko 11 neurri zehatz hartzea eskatzen die alderdiei; denak ala

denak egun urratzen diren lege eta irizpideetan oinarrituak, euskaradunok ditugun hizkuntz-  
eskubideak bermatzera bideratuak daudenak. Jarraian aurkitzen dira alderdiei hauteskunde-  
programetan jasotzea proposatutako 11 konpromisoak:

	<b>KONPROMISOA</b>	<b>LEGE ERREFERENTZIA</b>
<b>1</b>	<b>GUTXIENEZ, UDAL AURREKONTUAREN %2 EUSKARAREN NORMALIZAZIO POLITIKETARA BIDERATZEA</b>	Eusko Jaurlaritzak udalei dirulaguntzak eskatzerako orduan ezarri, baloratu eta saritu duen irizpidea.
<b>2</b>	<b>UDALEAN HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORA BIDERATZEN DEN GIZA-BALIABIDE KOPURUA (teknikariak, itzultzaileak...) EUSKO JAURLARITZAK ZEHAZTEN DUEN IRIZPIDEAREN ARABERAKOA IZATEA.</b>	Eusko Jaurlaritzaren EBPnren dimentsionamendu txostena.
<b>3</b>	<b>UDALAREN KANPO-KOMUNIKAZIO GUZTIA (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) % 100ean EUSKARAZ IRAKURTZEKO AUKERA AHALBIDETZEA, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.</b>	Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA.
<b>4</b>	<b>UDAL ALDIZKARIAK ETA ARGITALPENAK %100ean EUSKARAZ IRAKURTZEKO AUKERA AHALBIDETZEA, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.</b>	Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA
<b>5</b>	<b>UDALAREKIN HARREMAN GUZTIAK EUSKARAZ SOILIK IZAN NAHI DITUZTEN HERRITAR EUSKALDUNEN ERROLDA OSATZEA ETA HORI BERMATZEKO NEURRIAK HARTZEA.</b>	Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA
<b>6</b>	<b>UDALAREN JENDAURREKO ARRETA ZERBITZU GUZTIAN EUSKARAZKO ARRETA %100ean BERMATZEA.</b>	Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA eta 86/97 Dekretua
<b>7</b>	<b>DIRU-PUBLIKOA JASOTZEN DUTEN ENTITATE ETA ELKARTEEI, EUREN KANPO KOMUNIKAZIOAN HIZKUNTZ-IRIZPIDEAK BETETZEKO DERRIGORTASUNA EZARTZEA ETA JARRAIPEN BALIABIDEAK BERMATZEA, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.</b>	Udal Ordenantzak, udal euskara planak
<b>8</b>	<b>UDALAREN KANPO KONTRATAZIOETAN (lizitazioak, azpikontratazioak...), HIZKUNTZ IRIZPIDEAK EZARTZEA ETA JARRAIPEN BALIABIDEAK BERMATZEA.</b>	Udal Ordenantzak, udal euskara planak
<b>9</b>	<b>UDALEAN SORTUKO DIREN LANPOSTU BERRIETAN ZEIN ORDEZKAPENETAN DAGOKION HIZKUNTZ-ESKAKIZUNA BERMATZEA ETA DERRIGORTASUN DATAK EZARRI ETA BETEARAZTEA.</b>	86/97 Dekretua
<b>10</b>	<b>UDALAK HERRITARREKIN DITUEN BILERA ETA BATZARRETAN HALA NAHI DUTEN HERRITARREI SOILIK EUSKARAZ ARITZEKO AUKERA BERMATZEA.</b>	Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA
<b>11</b>	<b>UDALAK EUSKARA ORDENANTZA PROPIOA OSATZEA EDOTA EGUNERATZEA.</b>	Udal batek izan dezakeen tokiko arau gorena.

Aldarrikapen eta eskaera hauen berri emateko, Kontseiluak azken asteotan udalerriz-udalerrri egin ditu bilerak alderdiekin. Bilera horietara alderdi guztiak izan dira deituak, eta eskaeran berri jasota, hilabeteko epealdia eman zaie hartuko dituzten konpromisoak Kontseiluari jakinarazteko.

Erantzunak jasotzean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak konpromiso horien aitortza publikoa egingo du, modu pasitiboan.

## **SINADURA BILKETA HIZKUNTZ-ESKUBIDEEN URRAKETA SALATU ETA ALDERDIEI KONPROMISOAK ESKATZEKO**

Alderdiei konpromiso-proposamenak luzatuta, hizkuntz-eskubideen aldeko herritarren aktibazioa bideratzeari ekingo dio gaurtik aurrera Kontseiluak.

Kanpaina honen helburua bikoitza izango da:

- Alde batetik, euskaldunon hizkuntza eskubideak urratuak direla salatzea eta mezu hori gizarteratzea;
  - Ez, ezin garelako euskaraz bizi instituzio publikoetan.
  - Politikari guztiek ez dakitelako euskaraz,
  - Udal langile guztiek ez dakitelako euskaraz,
  - Udal komunikazioak ez daudelako beti euskaraz,
  - Batzar eta hitzaldiak erdaraz egiten direlako ia beti,
  - Ez dagoelako baliabide nahikorik euskara normalizatzeko...
  
- Bestetik, alderdiei egindako **KONPROMISO ESKAKIZUNEN aldeko sinadura publikoa emateko eskatzea**. Horretarako Change.org plataforman sinadura bilketa antolatu du Kontseiluak: <http://chnng.it/Jx7LWT8Lff>
  - Lortu ahal dugulako, BAI, WE CAN!
  - Ez garelako bigarren mailako herritarak,
  - Eskubideak ditugulako,
  - Alkate, zinegotzi eta udal euskaldunak nahi ditugulako...

Era berean, instituzio publikoetan bizi izan ditugun hizkuntz-urraketak kontatu eta salatzeko gonbidapena luzatzen die Kontseiluak herritarrei (#EzWeCant traola erabilita sare-sozialetan horretarako).

Informazio gehiago jaso edo gurekin harremanetan jarri nahi baduzue, idatziezaguzue posta-helbide honetara [aiaraldekoeuskalgintza@gmail.com](mailto:aiaraldekoeuskalgintza@gmail.com) edota dei gaitzazue telefonoz 688 86 29 49 zenbakira (Leire Sanjurjo, Kontseiluko dinamizatzailea).

Eskerrik asko zuen arretagatik!